

En Gipuzkoa, a 20 de septiembre de 2020

REUNIÓN DE LA JUNTA ELECTORAL DE LA FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE BALONMANO

Utilizando aplicaciones telemáticas, se reúne la Junta Electoral de la Federación Guipuzcoana de Balonmano con los siguientes asistentes:

Presidente Xabat Beloki
Vocal Borja Burguete
Secretaria Virginia Rodriguez

LEHENA.- ANTIA JAUNAREN HELEGITEARI EBAZPENA PRIMERO.- RESOLUCIÓN AL RECURSO DEL SEÑOR ANTIA

AURREKARIAK.- 2020ko irailaren 9an, posta elektronikoz bidez, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioan hurrengo hautagaitza aurkeztu zen:

JOSE MIGUEL ANTIA ALBIZU jauna

Hautagaitzak aurkezteko epea irailaren 8an bukatu zen, hauteskunde egutegiaren arabera.

2020ko irailaren 11an argitaratutako aktan, hauteskunde batzorde honek Antia jaunaren hautagaitza ez zuen behin behinean onartu.

Erabaki horren aurka helegitea aurkeztu du aipatutako jaunak.

Antia jaunak hiru argudio nagusi darabiltza esku-artean bere hautagaitza balioztatzea eskatzeko:

Lehena, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioarekin izandako hartu-emanen inguruan, bai posta elektronikoz, bai telefonoz, irailaren 8an, hauteskunde-egutegiaren arabera azken eguna.

Bigarrena, inprimakien egokitasuna eta irisgarritasunaren inguruan.

Hirugarrena, hauteskunde batzorde honek zehaztutako egutegiak hauteskunde-araudiarekin dituen kontraesanen inguruan.

Lehen puntuari dagokionean, bera bakarrik ez da nahikoa arrazoi erabakirik aldarazteko. Horren inguruan aurkeztu duen dokumentazioak itxuraz interesa baduela adierazten du, baina hautagaitza irailaren 9ra arte formalki ez duela aurkezten berresten du.

Bigarrenari dagokionez, inprimakiak ez dira izan bere hautagaitza aurkezteko oztopo. Federazioko idazkaritzatik dokumentazio egokia helarazi ziotela onartu du, eta bere

hautagaitza behin-behinean ez onartzearen arrazoia ez da izan inprimaki okerrean aurkeztu duenik, baizik eta epez kanpo aurkeztu duela.

Hirugarren eta azken puntuak aitzitik, mami gehiago du eta honetan arrazoi eman behar zaio helegitea tartekatu duen Antia jaunari. 2012ko otsailaren 19ko Kultura Sailburuaren Aginduak bere 59. artikuluan espreski azaltzen du 7 egun natural direla hautagaitzak aurkezteko epea "gutxienez". Hauteskunde-araudiaren 44. artikulua ere gauza bera dio: 7 egun natural direla hautagaitzak aurkezteko epea.

Honen aurrean, hauteskunde batzorde honek erantzun beharreko galdera honakoa da: nahikoa al da aurretik hauteskunde-egutegiari behar zen garaian eta moduan helegiterik jarri ez dion lagun baten helegitea kaltetua sentitu denean hauteskunde batzordeak hirugarrenez onartutako egutegia aldarazteko?

Eta erantzuna baiezkoa da. Indarrean dagoen araudia egutegiaren gainetik baitago. Beraz, hautagaitzak aurkezteko epea irailaren 4an hasten zenez, irailaren 10era arte (barne) aurkeztutako hautagaitzak baliozkotzat emango dira, eta beraz, baita Antia jaunarena ere.

EBAZPENA.- Antia jaunak aurkeztutako helegitea aintzatestea, behin betiko hautagai gisa aldarrikatuz.

ANTECEDENTES.- El 9 de septiembre de 2020, a través de correo electrónico, se presentó la siguiente candidatura para la Federación Guipuzcoana de Balonmano.

Señor JOSE MIGUEL ANTIA ALBIZU

El plazo para presentación de candidaturas concluyó el 8 de septiembre de 2020, según el calendario electoral aprobado.

En el acta que se publicó el 11 de septiembre de 2020, esta Junta Electoral no proclamó provisionalmente la candidatura del señor Antia.

El citado presentó recurso ante dicha decisión.

El señor Antia utiliza tres argumentos principalmente para solicitar la admisión de su candidatura:

Primera, relativa a los contactos que mantuvo con la Federación Guipuzcoana de Balonmano, tanto por e-mail como por teléfono, durante el 8 de septiembre, último día de presentación de candidaturas según el calendario electoral.

Segundo, sobre la accesibilidad y la corrección de los impresos.

Tercero, las contradicciones del calendario electoral aprobado por esta Junta con el reglamento electoral.

En lo que respecta al primer punto, dichos argumentos en exclusiva no son suficientes para hacer cambiar ninguna decisión. La documentación que presenta avala su intención, pero se confirma que los hechos (la presentación de la candidatura) se formalizan el 9 de septiembre.

Respecto al segundo punto, los impresos no han sido obstáculo para la presentación de su candidatura. La secretaria de la federación le remitió la documentación, y el ha acusado recibir dicha documentación. La no admisión de su candidatura no se debió a que lo presentara en un impreso no válido, sino a que lo presentara fuera de plazo, según el calendario electoral.

El tercer y último punto en cambio, tiene más miga y en eso el recurrente tiene razón. La orden de la Consejera de Cultura de 19 de febrero de 2012 en su artículo 59 explicita que los plazos para presentación de candidaturas son de 7 días “por lo menos”. El artículo 44 del reglamento electoral también va por el mismo sentido. Se indica que plazo para presentar candidatura son 7 días naturales.

Ante esto, la Junta Electoral debe resolver la siguiente cuestión: ¿es suficiente el recurso de una persona contra los plazos establecidos en el calendario electoral, no en su momento, sino justo en el momento que él se ha sentido perjudicado para cambiar el tercer calendario electoral?

Y la respuesta es que sí. La normativa vigente prevalece sobre el calendario. Por tanto, como los plazos para presentar candidaturas se abrieron el 4 de septiembre, se considerarán válidas las candidaturas presentadas hasta el 10 de septiembre (7 días naturales), y por tanto, también la del señor Antia.

RESOLUCIÓN.- Estimar el recurso del señor Antia, y por tanto, procede que sea proclamado candidato definitivo.

**BIGARRENA.- GIPUZKOAKO ESKUBALOI FEDERAZIOKO
LEHENDAKARITZARAKO HAUTAGAIEN BEHIN BETIKO ALDARRIKAPENA
SEGUNDO.- PROCLAMACIÓN DEFINITIVA DE LOS CANDIDATOS A LA
PRESIDENCIA DE LA FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE BALONMANO**

Honakoak aldarrikatzen dira hautagai behin-betiko:
Se proclaman los siguientes candidatos definitivos:

Sr. Mikel Mantxola Idigoras jauna
Sr. Jose Miguel Antia Albizu jauna

**HIRUGARRENA.- GIPUZKOAKO ESKUBALOI FEDERAZIOKO BATZAR
NAGUSIRAKO DEIALDIA
TERCERO.- CONVOCATORIA DE ASAMBLEA GENERAL DE LA
FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE BALONMANO**

Lehendakaria hautatzeko Batzar Nagusia deituko da irailaren 25erako. Federazioak batzarkideei deialdia bidaliko die. COVID-19 gaitza dela eta segurtasuna eta beharrezko baliabideak bermatuko dizkie Federazioak parte-hartzaile guztiei.

Se convocará Asamblea General para la elección de presidente para el 25 de septiembre. La federación remitirá la convocatoria a los assembleistas. Debido al virus COVID-19, la Federación deberá garantizar la seguridad y los necesarios recursos a todos los participantes.

Erabaki honen aurka helegitea aurkeztu daiteke Hauteskunde Batzorde honen aurrean edota Kirol Justiziako Euskal Batzordean, indarrean dauden araudiek xedatutakoaren arabera eta bertan zehaztutako epeetan.

Contra la presente resolución cabe interponer recurso ante esta Junta Electoral y/o el Comité Vasco de Justicia Deportiva, según lo que establece la normativa y reglamentos en vigor, en los plazos fijados en los mismos.